

OHIKO GALDERAK

1. Zergatik komeni zait errenergia-puntu bat instalatzea?

Ibilgailu elektrikoek fabrikatzaileek kable bat eman ohi dute, etxeko entxufe normal bati konektatzen zaiona. Kable hori, ordea, kontuz erabili behar da, eta noizean behingo kargetarako baino ez. Izan ere, instalazio elektrikoak jasan ahal duen karga-potentzia bat hautatu behar da; potentzia hori aukeratzen ez bada, etxeko entxufe gehiegi berotu daiteke, eta arazo larriagoak ere ekar ditzake.

Hori dela eta, errenergia-puntuen bidez ibilgailuak modu seguruan eta unibertsalki kargatzeko arau eta protokolo batzuk ezarri dira, mundu osoarako. Abantaila hauek dituzte:

1. Segurtasuna: errenergia-puntu batek kontrol pilotuaren bidezko funtzio bat erabiltzen du datuak ibilgailuaren eta errenergia-ekipoaren artean transmititzeko. Horrek segurtasun baldintza onenak bermatuko ditu karga-prozesu osoan, ezohiko gorabeheraren bat gertatzen bada ere (bateriak gehiegi berotzen badira, ezustean deskonektatzen badira edota karga-kablea apurtzen bada, besteak beste), erabiltzailea, etxeko instalazio elektrikoa eta ibilgailua bera babesteko.

2. Erosotasuna: Iberdrola Errenergia Berdea, errenergia-puntu bat izan dezakezu garajea, ibilgailuaren bateriak modu erosoan kargatzeko, ekipoan bertan sartuta dagoen karga-kablearen bidez eta ibilgailuaren fabrikatzaileek emandako noizbehinkako kargarako kablea aldiro-aldiro erabili beharrik izan gabe. Errenergia-puntuaren mahuka ibilgailuari konektatu, eta kito!

3. Karga-abiadura: karga-denborak laburragoak izan daitezten, auto elektrikoak etxeko entxufe batek luzaroan jasan dezakeena baino potentzia handiagoa behar izateko diseinatuta daude. Ibilgailu elektrikoek fabrikatzaileek gomendatzen dutenez, ibilgailuak puntuen bitartez kargatu behar dira beti, eta noizean behin baino ez dira erabili behar etxeko entxufeak.

2. Zergatik egokitu behar dut etxeko instalazio elektrikoa?

Instalazio elektrikoak indarrean dagoen araudia bete behar du, eta, horregatik, egokitu egin behar da.

Ibilgailu elektrikoek potentzia handiak behar dituzte karga-prozesurako. Hori dela eta, Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoak, eta zehazki ITC-BT 52 jarraibideek, segurtasunaren inguruko eskakizun batzuk ezartzen dituzte instalazioa ondo dagoela eta pertsonak, ibilgailua eta etxebizitza bera babesteko beharrezko elementu guztiak dituela ziurtatzeko.

Etxebizitzako beste ekipamendu batzuekin gertatzen den bezalaxe (aire girotuarekin, berogailu elektrikoarekin eta lehorgailuarekin, esaterako), errenergia-puntua gainerako kargetatik bereizita dagoen zirkuitu eskusibito batek elikatu behar du. Zirkuitu hori behar bezala dimentsionatuta egongo da aurreikusitako kargarako, eta kontaktu zuzen eta zeharkakoen, gehiegizko intentsitateen eta gehiegizko tentsioen kontrako babes espezifikoak izango ditu.

Instalazio elektrikoek bete beharreko segurtasun-baldintzak ez dira kargatuko den ibilgailu motaren araberakoak. Hau da, araudiak ez du desberdintasunik ezartzen ibilgailu elektrikoek eta entxufa daitezkeen hibridoek artean, karga-potentzien artean edo erabiliko diren karga-sistemen artean (etxeko entxufe edo errenergia-puntua).

3. Motoak eta/edo autoak karga ditzaket errenergia-puntu batean?

Bai, betiere errenergia-puntua bateragarria bada kargatuko den ibilgailu-motarekin. Gure errenergia-puntuek hala autoetarako nola motoetarako balio dute.

4. Ibilgailua kargatzeaz gain, zer beste zerbitzu ematen dizkirate Iberdrolaren errenergia-puntuek?

Iberdrola SMART errenergia-puntuek sarbidea kontrolatzeko sistema bat dute, ibilgailua zeuk nahi duzun pertsonak soilik kargatuko dutela ziurtatzeko. Gainera, errenergia-programa ditzakezu, zure ibilgailu elektrikoa nahi duzunean erabili ahal izan dezazun.

5. Elektrizitatea hornitzeko beste kontratu bat egin behar al dut errenergia-punturako?

Errenergia-puntua garaje integratua duen familia bakarreko etxebizitza batean instalatzen bada, ez dago elektrizitatea hornitzeko beste kontraturik egin beharrik.

Errenergia-puntua garaje komunitario batean instalatzen bada eta garaje hori etxebizitzaren eraikin berean badago, a priori, ez da beharrezkoa izango elektrizitatea hornitzeko beste kontratu bat egitea.

OHIKO GALDERAK

6. Egungo hornidura elektrikoa erabili nahiko banu ibilgailua kargatzeko, kontratua aldatu beharko nuke?

Kontraturiko potentzia zein den, ibilgailuak zer ezaugarri dituen eta karga noiz egiten den. Iberdrolak ibilgailua gauez kargatzea aholkatzen dizu, etxeko kontsumoa apalagoa baita orduan.

Egunez kargatu nahi baduzu, beharbada potentzia areagotu beharko duzu.

7. Garaje komunitarioa duen etxebizitza-bloke batean bizi banaiz, nola kargatu behar dut ibilgailua?

Jabetza horizontalaren legea aldatu egin da, garaje komunitarioetan errazago instala daitezten errearga-puntuak. Hala, aurrerantzean ez da beharrezkoa izango bizilagunen komunitatearen baimena lortzea azpiegitura elektrikoa gune komunen bitartez egiteko; nahikoa da zer-nolako instalazioa egin asmo duzun jakinaraztea. Nahi baduzu, Iberdrolak instalazioaren eta zure komunitatean beharko dituzun izapideen inguruko aholkuak eta laguntza emango dizkizu.

8. Ba al dago errekgaren azpiegiturarako laguntza publikorik?

Estatuko laguntzak eta autonomia-erkidegoen bidezkoak daude. Webgune honetan kontsulta ditzakezu eskura dituzun laguntzak: www.moveaplan.es.

9. Zein energia-iturri sartzen dira Iberdrolaren Energia Berdean?

Iberdrolaren Energia Berdea % 100 berriztagarriak diren iturrietatik bakarrik dator, 2001/77/CE Europako Zuzentarauak ezartzen duen moduan. Iturriok ez dute isurtzen berotegi-efektua eragiten duten gasik. Iturri % 100 berriztagarritzat jotzen dira haizearen, eguzkiaren eta uraren energia, besteak beste.

Ibilgailua **Iberdrolaren Energia Berdearekin** kargatzen baduzu, joan-etorrietan ez ezik, energia sortzean ere ez duzu gasik igorriko.